



Elkarri-ren historia, eskualdekoen bizipenetatik

AGURRA ▶ Sorreraz eta oroitzapenez mintzatu dira gizarte mugimenduko liberatu izan diren eskualdekoak

ZUBIAK ▶ Jonan Fernandez koordinatzailea: «Hitz batzuk hesiak dira; guk zubiak eraiki nahi genituen» ▶ 6-7



Jonan Fernandez, Tolosako Lizardi poetaren plazan. J. SAIZAR



Giroak irabazi du Gazte Olinpiaden kanporaketan

TOLOSALDEA ▶ Amezketan, Anoetan, Tolosa eta Villabonako taldeak aritu ziren jolasean ▶ 4

LEITZA ▶

Marka berria jarri du Inaxio Perurenak, 225 kiloko harria esku bakarrarekin altxata

«Jasoaldi dotorea egin dut, oso gustura nago», adierazi dio HITZari ▶ 5

garces
Altzariak

Jarduera
komertzialak
Garces Basoko
altzarietan
jarraitzen du

Tel.: 943 69 29 65
Larrea auzoa
20150
BILLABONA
(Gipuzkoa)



DEKORAZIOA

ESANAK ▶



JESUS GARMENDIA
ZALDUNA

«Orendainen jaioa naiz, eta harro nago horretaz. Behar baino gutxiagotan aipatzen dut nik neuk ere datu hori, eta Orendaingo nire betiko lagunak haserretu egiten dira, komunikabide guztietan donostiarrak naizela jartzen baitu. Egia da 8 urterekin joan nintzela bizitzera Donostiara, baina Orendaingo naiz»

«Nire ametsa denborarekin Donostian, edo Gipuzkoan behintzat, udal zaldi-eskola bat egotea litzateke, eskolaumeak beste edozein kiroletarako bidea duten bezalaxe, zaldi gainean trostan egiteko, animaliarekin harremanetan egoteko aukera edukitzeko»

«Bada hor sortzen den zerbait, animalia eta pertsonaren artean, inork ez dakiena oso ondo zer den, eta aldaketa erabarkoa da. Izugarriko mesedea egiten dio zaldiak arazoak dituenari»

'Habe' (2006ko otsaila)

LEHEN ETA ORAIN ▶



Tolosako Zerkausiaren itxuraldaketak historian zehar

Erredakzioa ▶ XVIII. mende amaieran kokatu behar da Tolosako Zerkausiaren jatorria. Gaztelako atea zegoen lekuan elkartzen ziren azoka egiteko, baina 1785ean erabaki zuten azoka erosoago egiteko estalpe bat eraikitzea. Eraikinak aldaketak izan ditu historian; nabarmenenak Alejandro Mujika eta Guillermo Eizagirre arkitekoei egindakoak. Mujikak 1898an Tolosa babesten zuen harrisiaren gainean eraikiko zen Zerkausiaren proiektua gauzatu

zuen. 1927an, Izagirrek aldaketak egin zituen (goiko argazkian), porlanezko formak gehituz eta egungo itxura emanez. Orain ere lanak ari dira burutzen (beheko argazkian), «eraikin funtzionala eta irekia izan dadin», Jokin Bildarratz alkatearen eta Juan Jose Gurrutxaga udal arkitektoaren esanetan. Aurtengo urtarrilaren 23an hasi ziren gunean segurtasun hesia jartzen Zerkausia berritzeko eta Solana kalea urbanizatzen. 'ARGAZKIAK TOLOSA (1920-1945)' / L. MONTES

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Suhiltzaileak. Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak. Informazioa: 943 313782.
Administrari laguntzaileak. Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 313782.
Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.

Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 313782.
Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan libre.

943 313782.
Peoiak, langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.
Aireportuak. Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak eta mantentze-lanerako langileak. Informazioa: 943 313782.
Harreragileak. Telefonistak, hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. 943 313782.

UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

Udaberria, sasoi berria



Iritsi da udaberria gurera, telebistan iragarri dute, irratian eta egunkarian: «Garai berria dator». Bart ikusi eta sentitutakoa otar batean sartu dezaket, mensajeroz bidali diezazuket etxera, bokadiloak bezala egunkari paperean bildu edo 1.500 karakteretan kontatu.

Iritsi da udaberria, bai. Arbolak loratu, eta lozorroan zeuden animaliak esnatu dira.

Hari mehe baten gisa etorri da udaberria, itxaropen hari baten moduan. Nire gelako sapatik behera dator harria; atzetik, armiarma zintzilik; eulia dago zain beherago, amaraunean kateatuta; ziztu batean doa armiarma harrapakinarean bila. Iskanbila sortu da gelan.

Lozorroa utzi eta gelako zirrikituetatik atera dira akaina, kukuxua, zorria, eltxoa, kilkerra..., ikusmina izu-

garria da, guztiak erne, begiak ilargi betearen moduan.

Armiarma badator harian behera, aise mugitzen ditu besoak, ezkerrekoak eta eskuinekoak, hamar pauso eta eulia aurrez aurre du, harraparia eta harrapakina. Euliak irribarretsu begiratu eta hankatik heldu du armiarma sarearen erdira eramanez, beste hankarekin izterra bildu dio eta mugimendu azkar batean, ezker besoarekin lepoa estutu, eskuinekoarekin berriz gerria lotu..., eta dantzan hasi dira, agarradoan. Inguruko xomorro

guztiak aho zabalik, «ooooooooh!». Euliak oraindik bi beso soberan ditu, bi eskuak altxa eta txaloka hasi da, txalo eske; gainontzeko xomorroek eulien keinu berbera egin dute, guztiak txaloka, akaina, kukuxua, zorria, txingurria, kilkerra, baita kakalardoa eta labezomorroa ere... dantzan hasi dira elkarrekin, sultloan eta agarradoan.

Goizeko zazpiak: gelako argia piztu dut (piztia guztiak izkutatu egin dira). Sabaitik zintzilik hari fin bat dago, kendu, argia itzali eta gelatik atera naiz. Armiarmak beste hari bat bota du. Harian behera dator eta amaraunean dantzan hasi dira: eulia, armiarma, akaina, kukuxua, zorria, txingurria, kilkerra, kakalardoa eta labezomorroa. Udaberria, sasoi berria.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Kalitatea Fundazioa, labela, hiltegiak eta nekazaritza politika

Azkenaldian asko hitz egin da ganaduaren munduari buruz. Hiltegien itxierak, sindikatuek, Kalitatea Fundazioak egindako adierazpenek... eman dute zer esana.

Idatzi hau sinatzen dugunok baserritarrok gara, eta Labela sortu zenetik Labelako ganadua gizentzen dugu. Gure keza eta haserrea azaldu nahi dugu, labelak hartu duen bidearekin erabat etsita gaudelako. Nekazarien ahotsak «garrantzi handia» duela diote Labelako arduradunek komunikabideetan, baina errealitatea, berriz, bestelakoa da oso: inork ez du gurekin ezertarako kontatu, ezta guk lagun eta lankide ditugun beste baserritarrekin ere. Zer eta nola egin behar ditugun esateko bai, baina zer iruditzen zaigun ez digute sekula galdetu.

Gure ustetan, Labelak, bertako haragia kalitatezko produktu bezala bereiztu, kanpoko merkatutik desberdintzea izan behar du helburu. Gaur egun,

ordea, badirudi Kalitatea Fundazioak produktibitatea primatzen duela guretzat oinarritzekoak diren baldintzen gaitetik. Haragiaren komertzializazioa hobetzeko beharrenean aitzakiaz, gutxi batzuen interes partikularrak bultzatu dira lotsagabeki.

Bestalde, Labelako ganadua gizentzeak esfortzu handiagoa suposatzen digu. Betebehar asko dira, gutxitan kalitatearekin zerikusia dutenak eta gehienetan irizpide komertzialetan oinarritutakoak; horrek ekoizpen kosteen igoera suposatzen digu, baina salmenta prezio altuagorik ez, berriz.

Zergatik jarraitzen dugu labelean, beraz? Baserritarrik gabe, dudarik gabe, ez litzateke labelik egongo —nahiz eta bulego dotorean egoten diren zenbaitzu ez diren ohartu horrekin—. Erantzuna Labelaren filosofian sinesten dugula da, eta euskal baserrietako ekoizpena babesteko derrigorrezko tresna deritzogula. Baina edozein ezinbesteko tresna esku okerretan eroriz gero, harekin lortutako emaitzak ere okerrak izaten dira.

Labelako ekoizle bezala, ez dugu ezagutzen Kalitatea Fundazioako barne-funtzionamendua. Ez dakigu nork markatzen dituen kalitateko irizpideak,

ezta gure produktuak komertzializatzeko bideak nortzuk erabakitzen dituzten ere, baina badakigu, behintzat, ez garela baserritarrok; hala izan balitz, oso egoera ezberdinean egongo baikinen une honetan.

Merkatu masifikatu batean «diferentziatzea» eta «kontsumitzaileei bertako kalitatezko nekazaritza produktuak eskaintzea» dutela helburutzat diote. Guk ere bat egiten dugu honekin. Arazoa da etiketan oinarritu dutela diferentziazio hori, eta horren ondorioz, gaur egun Labela, baserritarrentzat bezala, kontsumitzailearentzat ez da erreferentzia. Haragiaren kasuan, adibidez erreferentzia harakina da, baina ez Labela bera.

Helburua gure produktua diferentziatzea bada, ahalegin guztiak jarri beharko ditugu horretan, eta Kalitatea Fundazioa momentu honetak guttiz kontrako norabidean ari da, hau da, kanpoko imitatzen, haiekin konpetitu ahal izateko. Giltzurrunaren kasua da adibiderik garbiena. Giokela markak egin duen bezala, giltzurruna kentzea galaraztea eskatu genion Fundazioari, baina badirudi marka txiki eta pribatu batek baserritarra babesteko egin duena Labelak ezin duela egin.

Hiltegiak ixtea ez dagokiela diote. Oraingoan ere, ohi duzuten bezala, zuek harria bota eta segidan eskuaz izkutatu duzue. Hiltegiak ixtearen estrategia Gurokela enpresa bultzatea dela argi geratu denean, eta Kalitatea Fundazioko hainbat arduradun Gurokela bultzatzen publikoki azaldu direnean, nor nahi dute engainatu?

Haragi ekoizle bezala, eta gipuzkoar bezala, haragiari buruz aritu gara. Arabar patatari buruzko edo Gernikako piperrari buruzko ezagutza handigirik ez dugu, baina bertako baserritarren ahotik etsipen bera somatzen da, eta Labeldun produktu ezberdin guztietan gauza bera pasatzen ari dela ikusteak akatsa goi-goitik datorrela erakusten digu, nahiz eta lehen aitortu bezala, barreneko tripak ez ditugun ezagutzen.

Labelaren filosofia zuzena da, baina zuzendaritza esku okerretan erori denez, baserritarren eta kontsumitzaileen babesarako behar luken tresna, gutxi batzuen diru iturri bihurtu da, nekazaritzan behin eta berriro gertatzen den moduan.

Politika honen ondorioak nabarmenak dira. Baserritar kopurua beharuntz, eta batez besteko adina, berriz, goruntz. Horiexek dira azken urteotan

bultzatu den nekazaritza politikaren ondorioak; ukaezinak, eztabaidaezinak. Nekazariaren kontatu gabe egiten den nekazaritza politikaren ondorioak.

Honengatik guztiagatik Labelako arduraduneri eskatzen diegu lehenbailehen utz ditzatela euren karguak, haiek baitira porrot honen erantzule nagusiak. Labelak zuzendaritza berria behar du, interes komertzial partikularrak alde batera utziko dituen eta baserritarren iritzia eta beharrak errespetatuko dituen.

JABIER INTXAURRONDON
UGARTEMENDIA, AGUSTIN ARTOLA
GOIKOETXEA ETA BESTE BI
BASERRITAR ▶ BERASTEGIKO ETA
AMEZKETAKO BASERRITARRAK,
HURRENZ HURREN

Eskerrik asko Kabilari

Kabila txarangari eta bere zuzendari Joaquin Arratibeli eskerrak emateko idazten ditut lerro hauek. Mila esker Astear-titan nirekin izan zenuten begiruneagatik, Tolosako Inauterietako errepertorioko pieza bat niri dedikatu eta txaranga zuzentzen uzteagatik. Eskerrik asko, lagunak.

JUAN BAUTISTA ARANZABE
‘MATE’ ▶ TOLOSA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ANOETA ▶ GAZTE OLINPIADAK

Giroa irabazle

Eskualde guztiko partaideak osatutako taldeak ordezkatu du Tolosaldea

IMANOL GARCIA

Giro onean egin zituzten Gazte Olinpiaden eskualdeko kanporaketa Anoetan. Irabazlea ere, giroa bera izan zen. Izan ere, eskualde guztiko partaideak osatuko dute Tolosaldea ordezkatu duen taldea Donostian, apirilaren 2an, egingo den herrialdeko kanporaketan. Lau herriko gazte taldeak aritu ziren atzo jolasean: Amezketa, Anoeta, Tolosa eta Villabona. Amezketarrek 118 puntu lortu zituzten, anoetarrek 117, billabonatarrek 108 eta tolosarrek 92. Baina, esan bezala, azkenean helburua ondo pasatzea izan zen eta ez puntuak lortzea.

Eskualde guztiko gazte taldeak parte hartzeak, lehiakortasuna ezabatzeaz gain, beste asmo bat ere badu: animatzaile gehiago izatea. Atzo bertan, talde bakoitzari animoak ematera lagun ugari bildu ziren, bakoitza bere pankarta, turuta, danbor eta abarrekin. Koloretsuak ere izan ziren jolasak, talde bakoitzak kolore bateko kamiseta baitzuen.

Probak ez ziren nolanhikoa izan, eta abilezia erakustez gain, bere buruaz barre egiteko aukera ere ematen zuten. Koxkolen probarekin hasi ziren. Talde bakoitzak bere kolorea zuten lokotxak bildu behar zituen. Erraza dirudi, baina zapi batekin begiak estalita ziztuztenez, zertxobait zailtzen zen proba. Urez betetako puxikekin jarraitu zuten. Bi taldekin elkarri botatzen zioten, eta distantzia handienera jaurlitzen zutenek irabazten zuten. Beste proba batean, izotz puska bat ahoz aho pasatu behar zuten, eskuak erabili gabe. Guztira, zazpi proba egin behar izan zituzten.

Jolasak amaituta, afaria egitekoak ziren Anoetako Gazte-tzean. Ondoren, musika kontzertuentzako tarteak izan zen. Hurrengo hitzordua Donostia-ko kanporaketa izango dute Tolosaldekoek, datorren igandean. Irabaziz gero, finalean lehiatuko dira, Etxarri Aranzten (Nafarroa), Aste Santuan egingo duten Gazte Topaketa-ren baitan.



Koxkol bila aritu ziren jolasen lehen proban. I. GARCIA



Boligrafoa botilan sartzea zen probetako baten helburua. I. GARCIA

TOLOSA ▶

Ingurura ez ezik, azokara ere iritsi da udaberria

Zerrenda oso-osoan, lore eta zuhaitz landare mota asko aurkeztu dituzte

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka animosoa suertatu zen eguraldi ona medio. Udaberria iritsi da ingurura eta azokan ere isla izan zuen. Apaingarritako landareen artean berrikuntzak plazaratu baitzituzten eta zuhaitzen zerrendak ere asko hasi dira mugitzen.

Berdura plazan aurtengo aurreneko alegriak ikusi genituen, eta baita begoniak ere; 1,20 eurotan saldu zituzten eta, geranioekin eta kalendulekin batera aukera oso zabala ikus zitekeen postuetan. Baratarerako landareen artean ere hasi dira pixkanaka espezie berriak sartzen, piper landareetan kasu.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Zikalmena	5,00	-
Udaberriorea	2,00	-

Bertako produktuak		
Inbaurra	2,50	4,00
Ardi gazta	14,00	18,00

Produktu ekologikoak		
Tipula	1,75	2,00
Azenarioa	2,00	2,50

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Lokalak. Leiztan lokalak eta garajeak salgai. Eraikuntza berriari. 637 80 60 44.

Autoa. Golf GT TDI 110 CV, SS-AX salgai. 651 70 82 91.

Behorra. Gainean ibiltzeko 10 urteko behorra salgai, beharrezko guztiarekin. 609 44 25 09.

LANA

Zaintzailea. Goizez eta arratsaldean haur bat zaintzeko emakume euskalduna behar da. 626 86 89 14.

Ileapaintzailea.

Ileapaindegirako langilea behar dugu, lanordu erdirako. Bidali curriculum-a eta argazkia Tolosako lurre auzoa, 20, 3. B, helbidera.

Konparaketa egin

beste batzuk,
behersperadun nahastu
egin nahiko zaituzte

EROSKI/bidaiak
gurekin, goza
ozazu prezioekin onenean

Aste Santurako eta Pazko-Asterako egonaldiaren eskaintza berezia

<p>Portugal ESPOSIBEL (Aste Santurako, Ost. irabazle), primario berrak. Lehen alferre abarrik.</p> <p>100€ <small>25.630%</small></p>	<p>Salou Aste Santurako, Pazko-Asterako, Ost. irabazle, primario berrak. Lehen alferre abarrik.</p> <p>130€ <small>21.630%</small></p>
<p>Galicia VILLALBA, KAS BAKARRI, OST. irabazle, primario berrak. Lehen alferre abarrik.</p> <p>180€ <small>25.940%</small></p>	<p>Cambrils PRIMARIO BERRAK, OST. irabazle, primario berrak. Lehen alferre abarrik.</p> <p>173€ <small>26.755%</small></p>

*Prezioak pertsonako lege ikusiz. Lehen alferre abarrik. Ez daude sarturik gure eskaintza guztiak. Hantxaketa ikusiz. C/I 616, 2006 urtea.

Kontsulta itzazu Aste Santurako eta Pazko Asteak eskaintzak gure bulegoetan edo helbideran www.viajeroski.es

merezi duzu

parafarmazia

lurre auzoa, 7 • Tolosa
Tel.: 943 57 95 28 • farmadenda@euskalnet.net

- Haur elikadura
- Haurrentzako osagaiak
- Dermokosmetika
- Fitoterapia
- Ortopedia

Goiko

LOREZAINZA

lurre auzoa, 7 • Tolosa
Tel.: 948 510 287 - 667 848 832

- ❖ Diseinuak
- ❖ Ereintzak
- ❖ Landatzeak
- ❖ Ureztatze sistemak
- ❖ Mantenimenduak

BANAKETA ENPRESA batek, banatzaileak behar ditu, Donostialdean eta Tolosaldean.

» LAN BALDINTZAK:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Astelehena, martxoaren 27an,
deitu telefono honetara 943 304 341

LEITZA ▶ HARRI-JASOTZEA

Perurenak marka berria egin du

Esku bakarrarekin, 225 kiloko harria «dotore» jaso du bizkar gainera Leioan

JAIONE ASTIBIA

Marka berria egin du Inaxio Perurenak: 225 kiloko harri zilindrikoa bizkar gainera txukun eta garbi jaso du, bere marka ez ezik 23 urtez behoketan ere oraindainokoak hautsiz.

Leioako Sakoneta kiroldegian, Banakako Urrezko Aizkolaria Txapelketako kanporaketa saioa jokatzearekin batera, egun zuen atzo harri-jasotzaile leitzarrak bere marka. Aizkorako saioen artean tartekatuta egin zituen beroketak, bi eskuekin 220 kiloko altxa zuen, esate baterako. Bertara bildu ziren ikusleen ixiltasuna ere lagun zuela, arnasaldi sakon pare bat hartu eta epaileak txistua jotzearekin batera, altxaldiari ekin zion.

Perurena II.ak bikainki eman zion jasoaldia, baskulan zehazki 225 kilo eta 400 gramo eman zituen harriari: eskuin eskuaz, lurrari kenduz gerrira ekarri eta hiru kolpetan, bizkar gainera. Hiruetan aurrenekoak, eman ere handia egin zion eta, balantza pixka bat eragin zion, hori zuzendu eta beste bi tiki-xeagoekin argi eta garbi jaso eta berdindu zuen bizkar gainera.

Bueltarekin «dotore»

Berdinu bakarra ez, harritzarra lepoan zuela, jendaurrean buelta ere eman zuen, altxaldia dotoreziz jantziz. Lanak bukatutakoan HIRZARI aitortu zionez, «harria gelditu zaidanean, pentsatu gabe, nahi gabe ater

INAXIO PERURENA
HARRI-JASOTZAILEA

«Harria bizkar gainean gelditu zaidanean, pentsatu gabe, nahi gabe ateratzen da kanpora. Urrats guztiak dira garrantzitsuak»

«Aurretik egindako lana hamabost segundotan ateratzen da kanpora. Urrats guztiak dira garrantzitsuak»

zaib». Ikusleek txalo zaparrada artean eskertu zuen bukaera hori.

15 segundotan lanak egin eta ikaragarri gustura zegoen harri-jasotzailea: «Jasoaldi dotorea egin dut, oso ongi berdindutakoa, oso gustura nago», zioen berak. «Aurretik egindako lanak 15 segundotan ateratzen dira kanpora eta altxaldi osoak ematen du kezka, lurrari kentzetik hasi eta bizkarreratu arteraino. Dena ongi egin behar da», azaldu zuen, altxaldiari buruz.

Bere marka hautsi du hala, 5 kilo gehiagorekin, eta aldi berean, berea zen 23 urtez behoketako ere hobetu du, marka berria ezarritik: esku bakarrarekin, 225 kiloko zilindrikoa. Oraingoan, hortik gora, esku bakarrarekin egindako markarik onena 267 kilotan dago, atzokoan laguntzaile izan zuen Iñaki Perurena aitak berak egindakoa.

VILLABONA ▶ PRESOK



Salaberria herriko presoak gogora ekarri dute

Erredakzioa ▶ Atzo egin zituen lau urte Emilio Salaberria billabonatarra preso sartu zutela, eta herriko preso politikoekin gogoratzeko egin ohi duten gisan, urteurren ekitaldia egin zuten herrian. Horrela, atzo, 100 bat lagunek giza-katea

egin zuten herriko kaleetan barrena, urteurrena gogoratuz batera, *Amnistia orain* aldarrikatzen zuten leloa buru zutela. Salaberria Navalcarneron (Espainia) dago preso, Euskal Herritik 497 kilometrotara. IMANOL GARCIA

LEITZA ▶ EUSKARA



Leitzarrek, bai eskolak euskalduntzeari

J. Astibia ▶ Auzoetara hedatu zuten atzo eguerdiartean eskolak euskalduntzearen aldeko sinadura bilketa —irudian, Kale Nagusikoa—, eta arratsaldean antzerkiarekin eta musikarekin burutu zuten ekimena. J. ASTIBIA

IRURA ▶ ZUHAITZ EGUNA



Gaurko landareak, biharko zuhaitzak

Erredakzioa ▶ Zuhaitz Eguna egin zuten atzo Ibaigane parkean, 35 lizar-landare aldatu zituzten, iaz sartutakoak ihartuta zeuden eta. Irurako ume eta guraso mordoska aritu ziren langintza horretan, gero merienda egiteko. IMANOL GARCIA

Polimeroen injenieritza
etorhizuna bideratuko dizu

uni.leartik.com

Konpainia Etorbidia, 19.
48270 Markina-Xemein (Bizkaia)
Tel. 94 616 90 02. Fax. 94 616 91 60
info@leartik.com uni.leartik.com

Jardunaldi irekia
Apirilaren lehen Larunbata 10.30etan

Konpainien programa informazioa haserik erabiltzen dituztenak:
PRO-ENGINEER, ANSYS, MOLDFLOW, KALEIGRAPH, CHEMDRAW....

98%ko laneratzeko
Puntu-puntuko teknologia

Software hauek erabiltzeko ihasle bakoitzari ordenadore eramanagarri bana ematen zaio

GIZARTEA ▶

Elkarri eta Tolosa

Hamahiru urteko ibilbidearen ondoren, itxiera garaian, gizarte mugimendu honen sorreraz eta oroitzapenez mintzatu dira Elkarri-ko liberatu izan diren eskualdeko ordezkariak

JOXEMI SAIZAR

Tolosaldearekin harreman estua izan du aurreko astean —su-etena baino lau egun lehenago— pertsiana itxi zuen Elkarri gizarte mugimendua: tolosarrak izan ziren sortzaileetako batzuk, Bernardo Atxaga asteasuarrak eman zion izena, Tolosan izan zuen lehen egoitza, tolosarra izan da koordinatzailea, tolosarra da irudiaz arduratzen den diseinu enpresa...

Elkarri-ren aurrehistoria Tolosan kokatzen da. Leitzarango autobiararen aurka lanean aritu zen Lurralde koordinakundean aritu ziren lagun batzuk, tartean Jonan Fernandez tolosarra, bakearen aldeko mugimendu berri bat sortzeko lanean hasi ziren. Bitartean, Altsasun bide berean mugitzen ari zen kristau talde baten berri izan zuten, eta elkarrekin bilerak egiten hasi ziren bi herrietan. Tolosako bilerak Lizardi elkartean egiten ziren, lehen Lurraldeak izan zuen gelan, hain zuzen ere. Hortik jaiotzen zen Elkarri. «Egoitza hiribururen batean izatea nahi genuen, baina oso garestiak ziren alokairuak eta Tolosan hartu genuen», dio Jonan Fernandezek. Lizardi poetaren plazan hartu zuten: bulegoa kokatzen zen tartepianta eta beheko solairuan beste gela bat. Bertan hasi zen martxan Rigoberta Menchu Foruma, baina bi saio besterik ez ziren izan: Pedro J. Ramirez kazetaria eta Lluís Maria Xirinacs politikari katalana. «Ramirez autodeterminazioaren alde agertu zen, eta hori bideoan grabatuta dago», azaldu du Fernandezek. Artea erakusketa ere burutu zuten bertan. Gero beheko solairu hori bilertarako eta beste eginkizunetarako erabili zuten. Ia bost urtetan izan zen Elkarri-ren egoitza nagusia, Donostiara eramane arte.

Lehen langileak

Hasierako uneak oso zailak izan ziren. «50 bat lagun elkarrekin ginen eta ahal zuenak mailegu bat eskatu zuten hau martxan jartzeko», gogoratzen du Fernandezek. Gerora etorri ziren bazkideak, bakoitzak hileko mila pezeta jarritz. Lehen bi langile liberatuak Zigor Agirrezabalak tolosarra eta Gotzone Sestorain leitzararra izan ziren.



Bilbon 2002ko maiatzean bake konferentziari babesa emateko manifestazio jendetsua. HITZA



Jonan Fernandez Madrilgo Puerta del Sol-en, elkarriketaren aldeko ekitaldian, 1995eko uztailan. HITZA

Leitzarra Lurraldean ibili zen aurretik eta talde berarekin parte hartu zuen sorreran. Bertan lanean «nahiko azkar» sartu zela gogoratzen du, «publiko egin zenerako». Guztira zortzi urte egin zituen, lehen zazpiak antolaketa arduradun gisa eta azkena finantziario lanetan. «Pertsonalki oso aberasgarria izan zen. Asko ikasi nuen talde lanean, gatazkak nola konpondu, antolaketa arloan...», dio Sestorainek. Une latzenak «hasierakoak» izan omen ziren: «Alde guztietatik egurra jaso genuen. Alde batekoek beste aldekoak ginela uste zuten, eta alderantziz. Mesfidati begiratuaren gintuzten». Hemen ingurorik ez zuten Zigor Agirrezabalak tolosarra eta Zizurkilera lurrak bazirela gogoratzen du. «Leitzan hasi zen taldetxo bat lanean, baina motore bat falta

zen eta desagertu egin zen. Ni orduan ez nintzen bertan bizi», dio. Epe baten ondoren aldatzeko garaia iritsi zitzaioala pentatu zuen eta Elkarri-ko lana utzi zuen, baina bazkide eta aldiakariaren harpidedun gisa jarraitu du bukaera arte. «Lokarri-ri buruz gauza asko ezin dezaket esan. Beste lanetan sartuta nabil orain, eta ez dut prozesua jarraitu. Hala ere, bere papera baduela uste dut», bukatu du.

Lagun ezberdinak

Zigor Agirrezabalak ere Lurraldearen azken garaia ezagutu zituen eta hasieratik hasi zen Elkarri-n lanean. Bitartekariak behar ziren eta «telefono lan izugarria egitea» egokitu zitzaion. Guztira, zazpi urte egin

zituen buru-belarri lanean eta azken urteak ez ditu hain gertutik jarraitu. «Denetik» egin du Elkarri-n, eta azken garaian irudia eta materiala izan zituen ardura nagusia. Ibilbide luze honetan «lagun ezberdinak» izan dituztela dio, «garaiari arabera»: «Hasieran ezker abertzaleko asko, gero beste aldekoak ere bai, eta azkenean unibertsitate eta irakasle kuntzako jende asko». «Hasiera haietan Elkarri-koa izatea ez zen erraza», dio Agirrezabalak. Joan ziren ETaren kontrako lehen mobilizazioa —Julio Iglesias Zamoraren bahiketara— joatea «oso gogorra» izan zela dio. Baita ETari zuzendutako lehen komunikatuaren ondoren ezker abertzaletik jaso zuten erantzuna ere. «Pertsonalki, oso gazterik sartu nintze-

GOTZONE SESTORAIN LIBERATUA (LEITZA)

«Alde guztietatik egurra jaso genuen; alde batekoek beste aldekoak ginela uste zuten, eta alderantziz»

ZIGOR AGIRREZABALA LIBERATUA (TOLOSA)

«Pertsonalki, lanean eta politikan dena ikasteko balio izan dit esperientziak eta hori betiko geldituko zait»

JOSEBA VAZQUEZ LIBERATUA (TOLOSA)

«Denetik egin behar izan dut: aldizkarian, materialgintzan, tailer nazionalen, antolaketa...»

nez, lanean eta politikan dena ikasteko balio izan dit esperientziak eta hori betiko geldituko zait», dio.

Puerta del Sol-en, larri

1993an, Jonan Fernandez baino lehen, Joseba Vazquez tolosarra sartu zen liberatu gisa. «Denetik egin behar izan nuen: tailer nazionalen, materialgintzan, antolaketa, aldizkarian...», dio Vazquezek. Gipuzkoako antolaketa arduradun ere izan da urte askotan. Tolosako tailerrean hamalau bat lagun aritu direla dio, baina «une jakinetan» —bake konferentziarako mahaietan kasu— 60 lagun arte mobilizatu zituzten. Lau mobilizazio nagusiez gain, hainbat kontzentrazio eta ibilaldi ere izan direla gogoratzen du. «Behin Madrileraino joan ginen eta Inestrellas jarri zitzaizgun Puerta del Sol-en aurre egiten», erantsi du. Tolosatik bi autobus ateraz ziren, «era guztietako» jendearekin. Anekdotak gisa, behin AEBko Carter zentroko ordezkari bat alderdiakordezkariekin elkarrekin behar zuten hotela aurretik ikustera joan behar izan zuten Madrilerara eta, segurtasuna bermatzeko, Erregeak askotan hartzen zuela gela esan zion zuzendariak. «Ez dakiguna da zertara joaten zenen», gehitu du.

JONAN FERNANDEZ ▶ ELKARRI-KO KOORDINATZAILEA

«Batzuetan beldurra izan dut; mehatxuak ere jaso ditut»

Jonan Fernandez Erdozia (Tolosa, 1962) izan da Elkarri giza mugimenduaren bultzatzaile, koordinatzaile eta aurpegi eza-gunena hamahiru urte hauetan. Amaiera honetan HITZARE-kin aritu da solasean balantzea egiteko.

Zenbat tailer izatera iritsi zen Elkarri?

110 bat herritan. Batzuk lauz-pabost lagunekoak, baina beste batzuk 15 lagunekoak. Antolaketa sistema berria izan zen, ordu arte ikusi gabea. Haize freskoa ekarri genuen diskurtsoan eta estiloan, eta arrakasta izan zuen.

Hiztegi berria sortu duzue, hitzekin kontu handia izanez.

Hitz batzuk hesiak dira. Guk zubiak eraiki nahi genituen. Batzuetan asmatu dugu edo ulertu dute. Beste batzuetan ez. Hirugarren espazioaren sortzaileak eta defendatzaileak izan zarete.

Bi gune politiko eta sozial zeuden, bata ENAMen inguruan, bestea Ajuria Eneko mahaiaren inguruan. Beste gune bat bilatu nahi genuen, estrategiak aldatu.

Uneren batean beldurrik izan al duzu?

Bai, batzuetan bai. Mehatxuak ere jaso ditut.

Zer moduzko harremana izan duzue urte hauetan komunika-bideekin?

Orokorrean harrera ona izan dugu, baina prentsarekiko harremana etsipenarekin bizi behar izaten da beti: komunikabide batek kasorik ez egitea erabaki dezake, edo mamia duen ekitaldi bat asko prestatu ondoren ez du oihartzunik izaten edo alderantziz, azken orduan presaka prestatutako zerbaiti sekulako garrantzia ematea... Madrilgo gehienak oso aurka egon dira, gure informaziorik eman gabe. Ser kateak, Tele 5k eta *El Pais*-ek zertxobait egin dute; bestela, Espainian, bat ere ez. Katalunian eta hemen, bai.

Mundu mailan ere oihartzun handia izan duzue.

Nazioartean bake prozesuan laguntzeko sareak sortu ditugu. Esanguratsua izan zen, batez ere, bigarren bake konferentzian zazpi Nobel sariren laguntza jasotzea.

Jendea mobilizatzen ere jakin duzue.

Lau mobilizazio handi antolatu ditugu urte hauetan zehar, jendeaz gehiegi baliatu gabe. Beste mobilizazio batzuekin konparatuz, ez dira handienak izan, baina atzean alderdi politiko bat ez duen giza mugimendua izateko oso emaitza onak lortu ditugu.

Zer dute Euskal Herriatik desberdin Irlandak eta Katalunian?

Irlandan gizartea oso zatituta dago. Hemen, ordea, ez, oso integratuta dago. Horrek abantailak eta desabantailak ditu. Hemen arazo gutxiago ditugu eta hobeto bizi gara. Han, berriz, behar handiagoa dute. Katalunian, aldiz, biolentziaren eraginik ez dute.

Harreman zailenak beti PPrekin izan dituzue.

Paradoxa bada ere, Mayor Orejaren garaian harreman estua lortu genuen PPrekin. Iturgaitzen orduan hemengo burua. Orain, berriz, inorekin ez da biltzen, ez eta PSOErekin ere. Zein izan dituzu alderdietako solaskide nagusienak?



Jonan Fernandez Tolosan, Lizardi poetaren plazan. JOKEMI SAIZAR

EAJn, bere garaian, Ollora, Egibar eta Gorka Agirre. EAn, Larreina. Batasunan, Olarra eta Barrena. PSEn, Egiuren. Ezker Batuan, Madrazo eta Matute... Alderdi guztiekin.

Politikari askok euskara ez ikasteko aitzakia bezala erabiltzen dute beren lana. Zure kasuan alderantziz izan da, ikasteko eta trebatzeko balio izan dizu.

Bai, sorreratik garrantzi handia eman diogu euskarari barne eta kanpo funtzionamenduan, eta hitz egiteko gaitasuna hobetzeko balio izan dit. Barkamenak eskatu behar ditut euskaldunberria izanik

hankasartze handiak egin izan ditudalako.

Autobiaren gatazkaren ondoren liburu bat kaleratu zenuen. Orain baduzu asmorik? Bai, zirriborroren bat badut.

Eta hemendik aurrera, zer egingo duzu?

Fase berria irekiko da niretzat. Aurreko larunbatean nire lan publikoa bukatu zen. Hala ere, hilabete batzuetan zer egina izango dut Elkarri-ren hainbat gauza amaitzen.

Zer diozu su-etenaz?

Denok espero genuen. Gizarteak prozesu itzulezina egingo du, aukera eta zailtasun gehiagorekin. ◀

Zut diseinu taldea, irudi osoaren arduraduna

Zut diseinu talde tolosarraren lanak nortasun handia eman dio Elkarri-ri, bere ezaugarri garrantzitsua izan da, eta «lan txukun, serio, profesional eta erakargarri» gisa definitu dute maiz leku askotan. Talde honetan Miguel Belloso, Fernando Gomez eta Carlos Gomez tolosarrak ari dira.

Jonan Fernandezekin harremana aspaldidanik dute, Herri Batasunak ateratzen zuen *Plaza Zarra* aldizkaritik eta gero Lurralde koordinatzaileak.

Horregatik Elkarri sortu zenean Zut taldera jo zuen diseinuaz arduratzeko. «Hasiera batean artista ospetsuengana jo zuten: Bernardo Atxagak eman zien izena, eta logotipoa, Nestor Basterretxeak. Baina ez zen oso irudi egituratua eta moldaketa bat egin zuten, hango erroboa hartu eta gero ikur izan den bi koloretako zotza egin genuen», diote Zut-ekoek. Lehengo diseinuak kolore asko zituen, baina bi kolore izan behar zituen, «ekonomi-



Elkarri-ren logotipoa. HITZA

miagatik». Ikur horrek «dualtasuna, ideia desberdinen arteko gatazka, arazoak konpontzeko negoziaketak» esan nahi du, egileen esanetan. Logotipoa hori izan da beti, eta horren aldakuntza batzuk erabili izan dituzte Elkarri-ren kan-

paina eta ekitaldi desberdinetarako.

Zut arduratu da hamahiru urte hauetan Elkarri-ren irudiaz: kartelak, liburuxkak, gutunak, karpetak, liburuak... eta aldizkaria, noski. Honek hiruzpalau diseinu desberdin izan ditu. «Elkarri-rekin izan dugun harreman luze honetan, gutaz fidatu izana eta lan egiten uztea izan da onena. Aldi berean, gai baten inguruan luze eta zabal lan egiteko aukera eman digu», diote hiru di-

seinatzaileek. Hasieratik «mundu guztiarengana, espektro zabaleran» iristeko ahalgina egin dute mezuan eta estetikan, Elkarri «giza mugimendu zabala, sentsibiltate askotakoa» dela frogatzeko.

Elkarri-ren ondoren sortu berri den Lokarri mugimenduaren irudiaz ere arduratzen da Zut. Aurrekoarekiko aldaketa handia egin behar zuten. Hitzak berak korapiloa eta elkar-tzen gaituena esan nahi duenez, irudian hori adierazi nahi izan dute. Kolore urdin argia eta letra mota desberdina hautatu dute Lokarri-rentzat. ◀

LEHENENGOAK DIESELAREN SUKARRA CITRÖËNEN

HOTI TEKNOLOGI GARRIENA ESKAINTZA EZIN HOBETIKIN

CITRÖËN C1 Citröen hitz gisak 67 gaitza 8.080 € IVA	CITRÖËN C2 HDI Citröen hitz gisak 67 gaitza 8.320 € IVA	CITRÖËN C3 HDI Citröen hitz gisak 67 gaitza 2.500 €	CITRÖËN C5 HDI Citröen hitz gisak 67 gaitza 4.000 €	ITZULI PICASSO HDI Citröen hitz gisak 67 gaitza 4.550 €
---	---	---	---	---

CITRÖËN C4 HDI
Citröen hitz gisak
67 gaitza **3.000 €**

CITRÖËN C4 HDI
Citröen hitz gisak
67 gaitza **11.830 €** IVA

HILABETE ESKAINTZE HILABETE BUKAERARTE

IROVI, S.A. Citroën Konzesionario Ofiziala • Industriakoa s/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITRÖËN



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jubilatuen irteera antolatuta dute Lizarrara apirilaren 6rako, Aldaiondo sagardotegian bazkalduz eta Iruñea bisitatuz. Izen-ematea, elkartean.

Asteasu. *Konponbide garaia da* lelopean apirilaren 1ean Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute. 15:15ean aterako da, plazatik. Izen-ematea, tabernatan eta 615 70 87 32 telefono zenbakian.

Asteasu. 18/98ko auzipetuei eta bereziki Nekane Txapartegi herritarri elkartasuna adierazteko afaria Aitzondo elkartean, hilaren 31n. Izen-ematea, 615 70 87 32 telefono zenbakian.

Leitzaldea. Benidormera irteera antolatu du Arkupeak jubilatuta elkarteak, maiatzaren 10etik 24ra bitartean, 460 eurotan. Izen-ematea, elkartean.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak erromeria egingo du apirilaren 1ean. Jaiari amaiera emateko afaria antolatu dute, Abastosen. Kimetz arropa dendan eta Garikano zapata dendan daude salgai txartelak.

Tolosa. Laskorain Ikastolan 2004-05 ikasturtean DBH bukatu zuten ikasleek titulua jaso dezakete ikastolako idazkaritzan, Usabalen.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza, Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa, Azpiroz, M. L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

Bihar

Areso, Goizueta, F. Loidi etxea, 112.
Ibarra, Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

Gaur 10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina (errepikapena).

Bihar

11:00-14:00. *Tolosaldeko* ahotsa magazina.
21:00-22:00. *Argizirin* aittaldia, Xorroxin Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kantuan, lagun giroan

ASTEASU ▶ Herriko kantu taldeak kantujira antolatu zuen atzo, betiko abestiak kalez kale abestuz; berrogei lagun inguru elkartu ziren ekitaldi herrikoian



Kalejiran ibili ziren txistulariek lagundurik eta gero geldieneak egiten zituzten, plazakoa kasu, hiruzpalau abesti kantatzeko. I. GARCIA



Ekuan orriak hartuta, hainbat abesti ezagun kantatu zituzten. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Euskal Herrian euskaraz, *Baratze bat, Baldorba...* eta beste hainbat kantu ezagun abestuz ibili ziren berrogei lagun inguru, atzo, Asteasun. Herriko kantu taldeak antolatuta, kantujira egin zuten, lagun giroan. «Betiko abestiak berreskuratuta nahi ditugu», zioen Marga Jimenezek, kantu taldearen kidea. «Gure helburua ondo pasatzea da. Ez da behar izugarrizko ahotsa, abestea gustatzea besterik ez». Asteasun ekitaldi hau antolatzaiek helburu zehatza

zuen, Jimenezek azaldu duenez: «Herriarrak animatu nahi ditugu kantu taldean parte hartzera». Nahi duenak, badauki: hamabostean behin, astelehenean, elkartzen dira Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.

Asteasukoez ez ezik, inguruko herrietakoek —Larraul, Aduna eta Alkiza, non kantu taldeak edo abesbatzak ere badauden— eta Donostialdekoek ere parte hartu zuten. Txistulariek lagunduta, kalez kale kantuan ibili ondoren, babarrun-jate ederra egin zuten Aitzondo elkartean. Hor ere ez zen abestirik falta izan.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Jaxone (Zizurkil).
Zorionak eta ondo pasatu biharko eguna! Lagunak.



ZORIONAK
Amona Bittori.
Bihar 80 urte. Ama, amona eta birramona onenari, muxu handi bat.



Meaux-eko (Frantzia) espetxean, gose greba mugagabean, martxoaren 20tik, beren eskubideen alde. Animo Haimar, Urtzi eta Oier. Muxu handi bana, eta jo ta ke irabazi arte. Zuekin gaude. Etxekoak.



ZORIONAK, BORRITO!
1, 2, 3.....24! Zahartzen ari garela! Ondo pasa eguna! Muxutuak. Zein naiz? Aaa...



URTE ASKOAN
4, 5, 6.....19. Zorionak, txirripiti. Segi horrela, jator-jator.



ZORIONAK, TXIKITINA
Hurrengo parranda hirurok noiz? Muxutuak (Triro Kalabero).

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...